

ESTI AMORRORTU Euskal hiztunok, jabetzen gara egunerokoan bizi dugun testuinguru sozialaz?

2025-11-04



PLAZA

Hiztunengan jarri genuen arreta Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren azkenurreko saioan. Esti Amorrortu Deustuko unibertsitateko irakasle eta ikerlariak “kontzientizazio-prozesuak” aurkeztu zizkigun, norbanakoen, hau da, hiztunen, jabetzerako gako gisa.

1. Paulo Freireren pedagogia kritikotik ateratako terminoa da “kontzientizazioa”. Funtsean, soziolinguistikara aplikatuta, ordena soziolinguistikoari buruzko hausnarketa egin eta berdintasun-falta soziolinguistikoak identifikatzean, berdintasun-falta horien zergatiak aztertzean, eta egoera hori eta haren kausak eraldatzeko erabakimena mobilizatzean datza. Azken finean, horixe da jabetze-eskola baten helburua ere.

2. Esti Amorrortuk Equiling ikerketa-proiektua aurkeztu zigun, bertan garatu baitzuten, berak eta beste hainbat ikerlarik, kontzientizazio-prozesu hori. Bakarkako lanaren eta talde-lanaren uztarketa abiapuntu, bakoitzak hiztun modura bizi duen egoeraren gaineko hausnarketa egin zuten bertan, eta horrek ekar zitzakeen balizko aldaketa txikien analisia ere egin zuten.

3. Era horretako ikerketa bat egiteko (ez baitzen datu-jasoketa soilak izan; ikertzeaz gain eragiteko asmoa ere izan baitzuen), **espazio seguruen garrantzia nabarmendu zuen Estik.** Epaituak izan gabe, hiztun modura biluzteko dugun beharraz aritu zen, eta prozesu horretan akonpainamendu egokia egitea zein garrantzitsua den azpimarratu zuen.

4. Azken helburu modura, hiztunengan kontzientzia soziolinguistiko kritikoa garatzea zela azaldu zuen Estik. Norbere inguruneaz bakoitzak duen pertzepzioa landutakoan, egoera horri buelta emateko gogoak sortu zitzaizkion, adibidez, beraiek martxan jarritako ikerketan parte hartu zuten gazte askori. Eta horietako askok hizkuntza-mudantza egiteko bideak ere jarri zituzten.

ESTI AMORRORTU

Euskal hiztunok, jabetzen gara
egunerokoan bizi dugun testuinguru
sozialaz?

2025-11-04



5. Ikerketarako espazio seguruak sortzeak, espazio seguru horietan hiztunak aktibatzea ekarri zuela esan zuen Estik, baina azpimarratu zuen hori ez zela izan ondorio positibo bakarra. Beste espazio batzuetan ere aktibatzeke hautua egin zuten horietako askok, efektu biderkatzailea sortuz (besteak beste, Deustu bezalako leku batean euskaraz bizitzea posible izan daitekeela irudikatu arte). **Hori lortzeko moduko espazioak zubi-espazioak direla adierazi zuen Esti Amorrortuk.**

6. Ondorio modura, mezu baikor bat: **hiztunen aktibazioa benetan da posible**, aldeko inguruneetan, eta horretarako prest dauden norbanakoak aukeratuta. Lanerako bide posible eta eraginkor berri bat marrazten du horrek.